

'Gaztedi Lea-Artibai' hitzarmena sinatu dute Lea-Artibai Amankomunazgoak eta eskualdeko udal guztiek, Bizkaiko Foru Aldundiarekin

Plan honen bitartez, Gababusa, ikasleekin hezkidetza eta adikzioen inguruko prebentzioa landuko dira

Lea-Artibai Amankomunazgoak eta Amoroto, Aulesti, Berriatua, Etxebarria, Gizaburuaga, Ispaster, Lekeitio, Markina-Xemein, Mendexa, Munitibar, Ondarroa eta Ziortza-Bolibarreko udalek 'Gaztedi Lea-Artibai' programa martxan jartzeko akordioa sinatu dute aurten ere Bizkaiko Foru Aldundiarekin. Akordio honen bitartez, eskualdeko jaietara mugitzeko Gababus zerbitzua, eskola orduetan hezkidetzaren inguruko lanketa eta ikastetxeetan, adikzioen inguruko prebentzioa burutuko dituzte aurten. Lea Artibai Amankomunazgoan, apirilaren 25ean sinatu zuten eskualdeko alkateek hitzarmena.

Lankidetzaren hitzarmena 2017-2019 aldirako sinatu dute aipatutako erakundeek, Gaztedi Bizkaia 2020" proiektuaren esparruan gazteriari buruzko politika integrala ezarri, bultzatu eta garatzeko helburuarekin.

Aipatutako akordio honetan gazteriaren arloko politika integralak betearazteko jarduerak bideratu eta egiturak sortu behar dituztela nabarmendu dute erakunde sinatzaile guztiek. Horretaz gain, eskualdeetako proiektuak diseinatu eta ezartzeari garrantzia eman nahi zaio eta horregatik, aurrerantzean, eskualdeko gazteriari buruzko politika integralak bultzatuko dira.

Aurretik aipatu bezala Gababus zerbitzua, hezkidetza lanketa eta adikzioen inguruko prebentzioa burutuko da programa honen baitan. Dagoeneko Gababus zerbitzua martxan dago, baina eskualdeko hurrengo jaietara joan etorria egiteko zerbitzua eskainiko du irailaren 30era bitartean:

- Ondarroa: uztailak 1
- Amoroto: uztailak 7
- Markina-Xemein: uztailak 14
- Markina-Xemein: uztailak 15
- Etxebarria: uztailak 24
- Ispaster: uztailak 24
- Munitibar: Leatarren eguna (eguna zehazteko)
- Mendexa: abuztuak 2
- Ziortza-Bolibar: abuztuak 5
- Ondarroa: abuztuak 14
- Ondarroa: abuztuak 17
- Lekeitio: irailak 1
- Lekeitio: irailak 2
- Lekeitio: irailak 5
- Aulesti: irailak 22
- Markina-Xemein: irailak 30

Hezkidetza eta adikzioen inguruko prebentzioa Lekeitio, Markina-Xemein eta Ondarroako DBH, DBHO eta Heziketa Zikloetako ikasleekin landuko da, beraien eskola orduetan.

Aurrerantzean ere, gazteriari lotutako hainbat esparru ~~guzti hauek~~ lantzeko, hala nola mugikortasuna, prestakuntza, parte hartzea, ... ahaleginean jarraituko dutela azpimarratu du Lea-Artibai Amankomunazgoko lehendakariak. 'Gurea moduko eskualde batean gazteei baliabideak eskaini behar dizkiegu eta guk beraien beharrak identifikatu eta asetzen jarraituko dugu' azaldu du Rakel Elu lehendakariak.



LEA-ARTIBAI
AMANKOMUNAZGOA